

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Nahitaez laga beharreko lurak aldez aurretik okupatzeko hitzarmenaren iragarkia

Dulantziko Udalak, Egiletako Administrazio Batzarrak eta Joaquín Alos Bonillak hirigintza hitzarmenaren testua negoziatu eta sinatu dute:

Lehenengoa. Joaquín Alos Bonillak Dulantziko 02 poligonoko 132. lurzatiaren 61,00 metro koadro lagatzen dizkio Egiletako Kontzejuari aldez aurretik, era libre, ezeztaz eta doan. Hona lurzatiaren dekrribapena:

– 61,00 metro koadroko lurzatea, Dulantziko udalerriko 02 poligonoko 132. lurzatiako hegoekialdeko mugan.

Bigarrena. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 188. artikuluan xedatutakoaren arabera, Joaquín Alos Bonillaren titulartasuneko lurzatiaren eraikigarritasuna Dulantziko udalerriko 02 poligonoko 132 lurzatiaren gainerakoan gauzatu ahal izango da.

Okupatutako lursailaren zatiari dagokion eraikigarritasuna 36,6 metro koadro sabai da. 02 poligonoko 132 lurzatiaren eraikigarritasuna lagapena egin ondoren 360,09 metro koadro sabai da.

Bat etorrituz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriko 8. apartatuan ezarritakoarekin (urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 25.1 artikularekin eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikularekin loturik), jendaurrean egongo da 20 egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Aldi horretan interesdunek aipatutako udal bulegoetan aztertu ahal izango dute hirigintzako hitzarmenaren hasierako testua, eta nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Udal honen egoitza elektronikoa ere egongo da zerrenda interesdunen eskura: <https://alegria-dulantzi.egoitzaelektronikoa.eus/info>.

Alegría-Dulantzi, 2024ko azaroaren 25a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA